

Literatura euskeraren batasunari buruzko biltzar nagusiak Arantzazun

Billeren asmoa:

Euskaltzaindiak, bere sortzearen 50 urte betetzea dala ta, billera nagusi batzuek egin bearra zuen eta gaia autatzean zer obeto bere sorkeraren leenengo asmoa, orain arte erdizka erabakia eta gutxi beteaz izan dan literatura euskeraren batasuna baiño? 1920-an Campi3n eta Broussain jauneri agindu zien ortaz estudio bat egin zezaten, eta bi urtera argitaratua izan zen «Euskera» aldizkarian. Geroztik, Azkue, Altube, Orixe, Eguskitza eta abar jardun ziran gai orri buruz leen parte artan, eta oraingoan Krutwig, Villasante, Lafitte, Irigaray, eta abar. Ainbeste azterketaren ondorean, materialik eta iritzirik asko jaso da eta, oiek ordenaturik, puntu askotan batasunerako normak eman ditzazkeala pentsatu da, batasunaren gogoia dutenak alkar artu lezazkean gauzetan beintzat, eta ara emen alkarrizketetara dei egin bearra. Ots! Batasunez mintzatzeko ordua eldu da. Euskeraren etorkizunak ain bearezkoa duen batasuna. Literario batasuna. Eta literatura batasuntzat artzen da euskera idatzia orobat.

Iru eguneko billerak izango dira Arantzazun. Euskaltzaindiak, estudio oiek zeatz aztertzeke izendatu zuen batzordekoak, puntuz-puntu adierazike dituzte, gai oni buruz, beren asmoak euskal idazle eta euskal irakasleen aurrean azalduaz. Guztiak izango dute alkarrizketarako eskubidea. Eta agerpen bakoitzak bere ondorean izango duen alkarrizketa aintzat artuko da erabagiak emateko.

Biltzarreko deiak:

Dei egiten zaie, Euskaltzaindiko diranetatik aparte, euskal idazle eta euskal irakasle (naiz euskera irakasten ari direnak edo naiz ikastoletako maixu eta andereño).

Biltzarretara joan ezin diranak, txostenak biali lezazke beren iritzia agertuaz. Txosten aukeraz izan bearko dira.

Joaten diran guztiak izango dute itza, naiz Euskaltzaindiko ez izan.

Naiz Euskaltzaindiko edo naiz bertatik kanporako, guztiak errespetatu bearko dute biltzarretarako egin dan araudia.

Biltzarren araudiak:

Gai bakarra *Literatura euskeraren batasuna* izango da. Gai au, Euskaltzaindiaren batzorde teknikoak aurrez estudiantua oiñarriz arturik eramango da, puntuz-puntu zatitua.

Eta, puntuak, aukerak dira: *Batasunaren bear au zergaitik eta zertarako; ortografia; itzen formak; itz berriak; deklinazioa.*

Puntu bakoitzak izlari bat izango du, batzordeak erabaki duanaren txostena irakurriko duena.

Itzaldi bakoitzaren ondorean alkarrizketa librea izango da. Itza eskatzen duen bakoitzak amar minutuko epea izango du. Itz-eskaleak, maaiburukoeri begira mintza bearko dira. Itz-eskalea, izlariak eraman duen gaitik irten gabe mintza bearko da.

Alkarrizketak magnetofonuz jasoko dira, gero zeatzago aztertzeko.

Maaiburuko eta Euskaltzaindiak izendatutako batzorde teknikoaren artean artuko dira azken erabakiak.

Guztiak bat ez datoztenean botuetara joko da. Botua, euskaltzainak eta batzorde teknikukoak izango dute. Erabakirako, gutxienez, irutik biren diferentzia izan bearko da.

Izlari autatuak:

Manuel Lekuona euskaltzain-buruak, sarrerako itzaldia: *Batasunaren bearra zergaitik eta zertarako.*

Luis Mitxelena, batzorde teknikoaren buruak: *Ortografia.*

Luis Villasantek: *Itzen formak.*

Anbrosio Zatarainek: *Itz berriak.*

Salbador Garmendiak: *Deklinazioa.*

Maaiburukoak:

Haritschelar, Irigaray, Erkiaga, Lafitte, Larzabal, Irigoyen, Labayen eta Satrustegi jaun euskaltzaiñak. Beretariko norbaitek uts egitera, bertara joaten diran euskaltzaiñak beteko dute.

Azken erabakiak:

Azken erabakiak, ofizialki, azaroan Oñatiko Unibersidadean Euskaltzaindiaren urre-ezteiak ospatzeko izango diran jaialdietan emango dira. Eta ondorean, batasunerako norma guztiak liburu batean argitaratuak izango dira.